

Gregoria Bengoa Argarate

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1911-2009)*

Aurkibidea

Biografia



Marulanda auzoko (Zarimutz Elizatea) Bentazar baserrian jaio zen 1911n. Ama auzo bereko Mendibe baserrikoa zuen. 16 urterekin joan zen eskolara Aretxabaletara, mojen eskolara. 20 urterekin Mazmela elizateko Urazandi baserrira ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituen.

Zintak

ESK-045

• **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-04-25
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k)**: Elortza, Kepa

Pasarteak

1. 98 urtetatik, sei hilabete eskolan

- **Erref**: ESK-045/001
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gregoria Bengoa Azkarate 1911ko apirilaren 24an jaio zen Eskoriatzako Marulanda auzoko Bentazar baserrian. Aita Bolibarkoa zen eta ama Dorleta auzoko Mendibe baserrikoa. 15-16 urterekin Aretxabaletako mojen eskolan ibili zen. Sei hilabete eman zituen eskolan, izen-abizenak idazten ikasteko beste denbora.</p>

Transkripzioa

- Esango dostazu izena eta apellidua mesedez?
- Gregoria Bengoa Argarate.
- Eta non jaixo ziñan?
- Esan dotsut ba Marulandan, Bentazarren.
- Ta jaixo ziñan milla beratzirehun eta hamaikako, hamaikan apirillean, ezta? hogeta lauan, ointxe larogeta hemezortzi urte ein barri dako zu orduan.
- Aitte nungua zan?
- Aitte Bolibarkue esate ben ez dakitt nungue zan.
- Eta ama?
- Mendibikue.
- (Alaba): Mendibe baserrixe.
- Eta eskolan nun ibilli zara?
- Neu? Ba Atxabaletan ba, moja frantsesa esaten euen, baiña neu haundixe, neska haundixek, neuk hamasei bat urte, hamabost-hamasei bat neuken. Bat ez da denpora asko ondiok hil dala, hemen Atxabaleta partien, neuaz eskolan ibilitte; Araozko bat be bai, eta holakotxe banaka batzuk.
- Araozkua goguan dakotsu zein zan?
- Bai, haundixek, haundixek.
- (Alaba): Araozkue zein zan dakitzun!
- Ez, ez dakit, Kukun parientie zan ta, Kukunak be fan dire norabait...
- (Alaba): Kukuna, Lasagabaster dendia Arrasaten, ez dakitzu zelan dauen? (...)
- Urte asko dire ta...
- Zenbat denpora in ze ben eskolan?
- Sei hillebete.
- Horrekin ya eskribitten eta irakurten eta dana ikasiko zeuein, ezta?
- Firmia ikasi neuen justo samarretik, neure izena eta apellidue. Bestela ze in biher geuen?
- Eta etxien eskolia ebalten zeuen ezertarako?

2. Hasieran ganadurik ez

- **Erref:** ESK-045/002
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ez zuten ganadurik etxean, ez eta ardirik ere. Aita baserri-arotza zen eta lan asko izaten zuen gurdi, trailu, eta abarrekin. Amak diru guztia lursailak erosten gastatzen zuen. Aita etxegintzan ere ibili zen.</p>

Transkripzioa

- Zure aittak ze itten eben? Etxien ganaurik eta bazeukein?
- Ganauek euki bagittu, bixkarrien ez gitzen ibilliko, ez gitzan egurrekin ibilliko. Ganauek bat... Aitte eta ama juntau in ziren, ez aukien ganaurik, bai? Eta ba ganaue, eta gaztaiñak, “bueno, zuk gaztaiñak zaukatzun, ezta? Bueno, zu etorri gaztaiñak batzen”; gaztaiñak batzen danak, hala!
- Astua euko zeuein. Astua bazeukein?
- Bai, astua bageuken.
- Eta ardirik-edo?
- Ezebez; ardixak oin dabiltz, gerien dabiltz.
- Eta zure aittak orduen ze itten eben? Zure aitta zer zan, arotza-edo?
- Bai, arotza zan.
- Eta ze itten eben zure aittak? Muebliak edo uztarrixak edo...
- Orduen lan asko euen, oin honek traktoriek eta garabiek kendu dittue lanak arotzendako. Baiña lehenago egin ahala lana! Berandu baten erretiretan zan. Haren lana zan, bueno, arotza, burdin-arie, arta-arie, trillue, danak, bai. Denporia eukanien geuz ibiltten zan baiña dotriñie irakusten, haxe erakusten oskun. Eta juntau kuadrillia badakitzu, beratzi, beratzi, bueno, batzuk egoten ziren. Ama ez, ama txakur txiki bat edo bi manejetan bazittuan, terrenuek erosteko dirua, amak.
- A bai, e?
- Bai, holakorik! Hala, guk aurrera urten in biher dogu, ez dau...
- Eta aittak etxegintzan eta itten eben edo bakarrik burdi asuntuan? Etxiak egitten eta ibiltten zan aitta?
- Etxiak? Kontratista bat euken Atxabaletan. Oin ez dakit ez dauen baiña ibiltten zan. Hola, astua lakotxe Eskoriatzan eukan bere antzerako bat eta egurra ekartzen eta oingo moduen ez. Ez auen adelanturik, ibiliko ez zan ba? Bai horixe! Horixe bai, danera. Seguran akordetan naz egun baten, Segurara fan biher euela, elizia arregletan. Eta holaxe ibiltten ziren, ez dau, lana egindde, danera egitten auen harek. Baiña bauken Eskoriatzan bere antzerako bat. Haundixa eta ebatu eta lan dana itten; hola hobeto ibiltten da.

3. Aita arotza; ama eta umeak etxean

- **Erref:** ESK-045/003
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Aita, bere lanagatik, gutxi egoten zen etxean. Amak erositako lursailetan denetik landatzen zuten. Geroago ganaduak jarri zituzten etxean, uztarrirakoak barne. Umeek egiten zituzten lan batzuk (itaurrean, esaterako) traktoreak etorri zirenean ezkutatu ziren. Bederatzi anai-arreba izan ziren, Gregoria laugarrena.

Transkripzioa

- Eta etxien sororik eta bazeukatzuein?
- Ez dotsut ba esan? Amak soruak eta erosi biher harrapaten auen diru horreaz, aittak irabazten euenaz; eta aittak, aitta ez zan metiuten, aitta ez zan metiuten, aitta bere lanien, arotzetan.
- Baiña etxien ortua edo zerbait euko zeuein. Olluak-eta.
- Ene! Euen zenbat terreno! Sobran euen lobiak terrenuak egindda.
- Biña orturik bazeukatzuein, ortua?
- Bai, ortua eukiko ez geuen ba?
- Eta sorua plantauta, patatia-eta?
- Klaro, terrenuek amak erosten zittuenak, patatie ta artue ta babie ta, danetik.
- Eta orduen, ganaurik ez bazeukatzuein ittaurren eta ez zeuein itten.
- Gero ganauak ipiñi gittun guk.
- A bai?
- Bai, uztarrikuek be bai. Lana in ezkeru egin itten da aurrera, aurrera.
- Zu zeu ittaurren eta ibilitta zauz?
- Bai, ittaurren bai horixe, bai horixe! Gero honeik [...] traktoriek kendu euen eta grabiekin lana, eskerrak horitxek etorri zirelako, bestela hemengo umiok danok, bata ittaurren eta bestien zerien, hala.
- Zenbat anae-arreba ziñain?
- Beratzi. Baiña haundixak onduen urten oskun. Hemen maristak dabitzen, ez dakitzu?
- Eskoriatzan?
- Bai. Han ibili zan eskolan. Beste biaz, eta horrek eskolia ikasi zun, eta hala, Bittorixara.
- Fan zan?
- Bai, andriaz ta aide. Etxien bestiok.
- Eta zuk zenbagarrena ziñan beratzi anae-arreba horrein artian?
- Nik nauken aitzia zaharragua, beste bat be bai aizta zaharrena, bigarrena, hirugarrena, ni laugarrena naz.
- Laugarrena ziñan.

4. Jolasak eta jakiak

- **Erref:** ESK-045/004
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Auzoko umeek "txirikillan" jolasten zuten. Geroago mutilak bizikletan ibiltzen hasi ziren. Goizean taloa edo artoa esnearekin, eta eguerdian babarrunak azarekin jaten zuten egunero. Igandetan bakarrik hartzen zuten

salda ona eta okela tomatearekin eta piper handiekin. Oiloak eta untxiak ere izaten zituzten etxean. Ama Gasteizko plazara joaten zen, etxeko gauzak saltzera.</p>

5. Gasteizko azokara trenez

- **Erref:** ESK-045/005
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:12:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lursailak eta ganaduak erosiaz eta etxeko umeen lanekin, etxea jaso zuten pitinka-pitinka. Leintz Gatzagan hartzen zuen amak Gasteizera zihoan trenea, baina Leintz Gatzagaraino oinez joan behar izaten zen, otzarak eskuetan hartuta. Gaztaina denboran, gaztainak eta salda izaten zen eguneroko afaria.

6. Jaietan txistua eta danbolina jotzeko ohitura

- **Erref:** ESK-045/006
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Auzoko jaietarako familia osoak elkartzen ziren. San Pedro egunean etxerik etxe ibiltzen ziren txistua eta danbolina jotzen, dirua biltzen. Gazte denborako erromerietan txistua eta danbolina jotzen zituzten; soinua jotzen geroago hasi ziren.</p>

7. Aita Kubako gerran egona

- **Erref:** ESK-045/008
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:21:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Gregoriaren aita eta beste bertako batzuk Kubako gerran egon ziren. Itsaso txarrarekin joan omen ziren eta ez zuten denbora askorik pasatu bertan, bidali egin omen zituzten handik. Aitak ez zuen babarrunik jaten, baina barazki zalea zen. Ardoa ere gustuko zuen eta ehun urte hartu zituen. Hogei urterekin ezkondu zen Gregoria Urazandi baserrira. "Beroa" lantegiko nagusiek Gregoriari eta bere ahizpa bati eskaini zieten lana.</p>

8. Etxean jende asko

- **Erref:** ESK-045/010
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Gregoria Urazandi baserrira ezkondu zenean, senarra, haren gurasoak eta bi anaia zeuden etxean. Etxean ez zegoen urik. Etxean ura jarri eta gero, oinaztarri batek ur-andela hondatu zuen.</p>

Transkripzioa

- Hona ezkondu ziñanien, hemen zenbat jente euen etxien?
- Bat aitte eta seme bi.
- (Alaba): Aitte ta ama. Bi seme eta beorren gizona beste bat, hiru.
- Hemen ganaurik eta beuen zu ezkondu ziñanien?
- Errekia, han behien, urik bapez. Esango dotsut, sekule, honek esaten dau sarritan errepetiuten dost baiñe, sekule esan dot. Aber, kamiñue, hor kamiñeruek auen koiñatie ta koiñatue, eta hor beheratxuau ura euen, metala dala ez zala. Hemen bapez urik. Errekara gure aizta difuntia, Jaungoikuak zeruan euki daixela, han bueltan badau ba kamiño ez gñan ure, kamiñuen?
- Bai.
- Hara faten zan janordua itteko. Alargun jarri zan gerra denporan, suerte txarra euki auen, gizona ia aurrera eruen ta suerte txarra. Hemen egoten da sarritan. Bestela errekara. Gero kamiñue, katapaza hori koiñatuori, zera kamiñuori erdibittu eta kamiño erdixe kotxie pasetako, eta beste erdixe tubuek pasetan, tubue, eta harek barrura sartzen zanien ha ondo ifiñi ha aldie, eta handik fan daittezela kotxiek, beste aldetik, beste aldie ifintten. Bost bat, dana in euen, kuadrilliak. Ondiok akordetan naz, hamarretakua erueten fan nitzen, eta hamarretakua jateko beste bat be bai, [...]
- Eta orduen ze in zeuen, etxera ura ekarri?
- Bai.
- Zenbat urte zeukatzun zuk orduan?
- Gero ure hona eta bost batek, orduen deposittue suerte txarra euki geuen guk, ez ur eta ez argi, itxurie iñiztue sartu zan barrure.
- Zer sartu zan?
- Iñiztue depositto zaharrera, han dau deposittue. Bueno, horreik be pasau ziren.

9. Ura eta argindarra

- **Erref:** ESK-045/011
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:29:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Gero Atxorrotz azpitik ekarri zuten ura, galbanizatutako hodietan. Bolibarko

Olazartik ekarrita zuten argindarra oso eskasa zen. Marulandan bertako zentraletik hartzen zuten argindarra. "Beroa"-koek tailertxo bat zuten zentral horretan.

Transkripzioa

- Suok be bai, hau hirugarren ekonomia daukogu hemen. Gero, han Atxorrotzen badau ba, Atxorrotxe Aitxekurtzeko han goixen?
- Ez dot nik ezaguketan.
- (...)
- Haundixa da, lehengo gerran be oso preziadua izaten zan hori. Atxabaletakua Santutxotik oinguen, oinguen be 'da' hor, eta 'da' hemen eta 'da', baiña ha zutik Aitxekurtzeko, bai. Handixek azpittik ekarritta dakogu, lehenauko etxetik oin ura ipiñitta. Bueno, galbanizaue, pentsaizu.
- Tubua.
- Bai. Gero hasi zan hor zuluek, urtiak fanda, hemen be bai zuluek eta hola. Kristaua! Handik urte batzutara pasau ziren eta kendu hareik eta hona [...] Nungua da?
- (Alabie): plastikozko bat sartu auen, plastikozkuaz ipiñi zan.
- Untzillako batek, bonbiaz ekarri euen, ensegida e? Ez dakit zenbat denporan, horrek jakingo dau.
- Argindarra noiz sartu zeuen etxien?
- Bolibartik txiki-txikiña, motza, oso oso argi motza. Baiña gero ba badakitzu, kanbixau zan argixori.
- Bolibartik ekarten zeuen argixa?
- Lehen bai, Olazar esaten utsien.
- Presaren bat edo dago?
- Olazar esaten utsien, hango ura uste dot hartuta daukiela honako argirako, Bolibarren.
- Zuk zenbat urte zeukatzun argixa ekarri zanien?
- Argixe? Motela baiñe ni hona etorri nitzanien hemen bauen.
- Beuen ya? Eta Marulandan bazeukatzuein? Marulandan argirik bai?
- Bai, Marulandan egongo ez zan ba, Marulandan? Bertan zentrala ta! Behien zentrala.
- (Alaba): Zentrala eta gero Beroako lana etxepeien aukien eurok taillertxo bat; bueno eurok, ugezabak han aukein taillertxo bat, han azpiban, etxepeien.
- Zentralaren onduen?
- (Alaba): klaro, zentrala, han bertan. Eurok bizi ziren goixen.

10. Etxetik alde egin behar gerran

- **Erref:** ESK-045/012
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:31:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gregoriak bi ume zituen gerra hasi zenean. Aretxabaleta aldera joan ziren eta hilabete pare bat eman zituzten Oro auzunean. Etxetik bi behi eramán ahal izan zituzten arren, hil berri zuten txerria militarrek kendu zieten.

Transkripzioa

- Zuk gerria hasi zanian, zuk euko zittun hogeita bost urte
- Bi mutiko naukan.
- Gerria hasi zanian?
- Bai.
- Ze rekuerso dakotzu gerrakuak?
- Fan gitzan Atxabaleta partera, gizona Atxabaletan. Gero badakitzu, zuk idea bat, nik beste bat eta horrek beste bat eta guk ez geukan idearik ezebe baiña Atxabaleta partera fan gitzan, eta Atxabaleta partien hillebete edo bi in gittun guk. Oro badakitzu non dauen? Fan gitzan Atxabaleta partera.
- Oro bai, auzounia bai.
- Makiñabat, makiña bat tiro handik zeretik, elixako zeretik in euen. Atxabaletan badaz nunbaitteko...
- Orduen zuek egon ziñain han gordeta? Hemendik ihes egindda?
- Bai, hemetik fan gitzan. Eruen gittuen bi behi eruen gittuen. Txarrixe hil barri geuken, baiña txarri eder bat eruen oskun hortik zihar.
- Militarrak?
- Bai, bai.
- Eta hemen Urezaundin tirorik eta egon zan? Bonbarik eta egon zan Urezaundin?
- Bai, ene! Danien, hemen danien. Geldik ez ziren egon e? Hor auzen gorrixak esaten jaukonak, eta Aitxorrotzen auzen bestiek. Bi auzen bi aldetara.
- Eta zuek erdixan.
- Bai.

11. Gerrako kontuak

- **Erref:** ESK-045/013
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:31:36. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

"Gorriek" senide bat hil zioten gerran. Gerrako beste kontu batzuk.

Transkripzioa

- Gero pasau jakon, hemen gaur bezinuak telefonue eta telefonue jo eta danak hartute etxe baten. Eta gure koiñatue ta Gatzagatik fan biher euen Eskoriatzara hortik basoz, ezta? Kobretan kamiñeruok, eta horreik hartu.
- Baiña kobretan zer?
- Horrek telefonuena danak. Horreik hatu eta aide! Bizkai aldera eruen zittuen auzokua bat behintzet, mutil bat.
- (Alaba): "chivatazo", telefonotik hartu llamadia, eta [...] bittartien detenidu.
- Hori, gura dauena, ez dakit nun dauen, betik fateko, fateko, baiña gure koiñatua hantxe hil euen gorrixek.
- Gorrixak hil euein?
- Bai, klaro. "Castigos", ez dakitzu, zera ifintten, jesus, zela esaten da? "Zuk hau zanjiori atara biozu", ba holaxe dabitzela. Eta suerte txarrak.
- Oseake lana itten forzauta, eta tiroz hil euein?

-Bai, klaro, ha bakarrik suertia, [...] bestiek, beste Gatzagatik etorri ziren. Gero laister suertau zan ba hartzie gerrie, eta ikusi bazeue, hemen oin piñue dau baiña piñurik ez euen ta, Bilbo aldera hemen euen jentie, gero Bilbora aldera fan ziren, eta hor goiko etxien 'Komite' esaten otsena, jana Bilbotik ekarritta euen, euren aldekuendako eta honeikin faten ziren beziñuak, [...] horreik ez euen ezer falta baiña guk ezin.

12. Gerran auzoa hutsik

- **Erref:** ESK-045/014
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:36:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran auzoa ia hutsik egon zen. Eurak Oroko etxe zahar batean egon ziren, baina gurasoak beste etxe batera eraman behar izan zituzten. Sei seme-alaba izan ditu Gregoriak.

13. Batzuek gerra aprobetxatu zuten

- **Erref:** ESK-045/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:36:59. **Bukatu:** 00:38:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Orotik itzuli zirenean, etxea zarramarraz beteta aurkitu zuten eta gauza asko falta ziren, lapurtuta. Gregoriak dio gerran ezer ez zutenak gauzekin geratu zirela eta zerbait zutenak, berriz, ezerekin.</p>

Transkripzioa

- Gero gerra ostia zer modukua izan zan?
- Ezebez, baikotxak bere aldetik lana egin eta aurrera.
- Etxia eta ondo topau zeuein? Orotik bueltau ziñaiñian etxia ondo euen?
- Etxia zarramarraz beteta dana, txakurrek be danak akabaute, txakurrek ederrak geuken ta, bai.
- Militarrak ebali euen etxia? Zuek Oron egon ziñain bittartian?
- Klaro, hareik nire koltxoia Zarimutzen topau auen, koltxoie Zarimutzen.
- Zarimutzen.
- Bai.
- Hemendik eruandakua.
- Bai.
- Eta ze in euein, ostu egin otsuein gauzak?
- Klaro, ze ingo euein ba? Badakitzu gauza gutxiago esateko, ezer ez daukenak jeneruaz geratu ziren orduen, eta jenerua aukenak bape barik. Bai, hor hemetik hurrien dau gizona naparra esaten euen Zarimutzen, tiruaz hil eta famelixie itxitako euen andrie, hortxe zelaixen, bai. Eta holaxe, ez dau.

14. Gerran denak berdinak

- **Erref:** ESK-045/016
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:38:21. **Bukatu:** 00:41:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Orotik bi behirekin itzuli ziren. Etxean zeuden oiloak eramatera etorri zitzaizkien gizon batzuk, euskaldunak batzuk, erdaldunak besteak. Euretako inori ez zien federik ematen Gregoriak.

Transkripzioa

- Eta gero gerra ostien atzera ganauak ifiñi-eta...luzia izango zan, ezta? Gerra ostian bueltia luzia izango zan. Gerra ostien normal jarraitu zeuein?
- Ifiñi in biher, ez dotsut ba esaten? Bi eruen gittuala hara Atxabaletara?
- Bai, hareik ekarri in zittuein atzera.
- Bai, hareitxek ekarri gittuan. Eta oilluek, oilluek hor goixen txabola bat gauken, han bi eta hemen bapez. Etorri ziren egun baten, eta lehenengo etorri zirenak gu ezagutu itten, gizona be bai eta ni be bai, atxabaletarrak, eta bi etorri ziren, aber zer eta oilluek, bueno ba oilluok eta gero dirue be bai, euskal dirue, euskerazko dirue. Aittek euken izua, eta eskerrak e? Aittak "ez, ez, eruen, eruen oilluok, ez da biher ta". Ez, artzaik hori dirue; gero enterau gitzan nortzuk ziren. Bi horren hemen euen, eta bi [...]
- ezagutu itten Atxabaletako jentia, eta gero beste batzuk etorri ziren handik egun gutxira, oilluek harrapatan, baiñe ezin harrapau egunez ziren ta, eguna zan ta [...] eta amak ezkatzetik, ez oskun urteten mutiko bixekin hortxe, eta harek umiek zainttu zittuen, ama difuntiak. Bestiek sikiera horreik bestiok barre egindda fan ziren horreik atxabaletarrok.
- Barre egindda?
- Bai, oilluekin, otan auzen ta, hartu eta eruen besterik ez. Hareik bestiek eguna zan, eta aittek esan usten, ez dakit zer esan utsen euskeraz eta ifiñi eskopetia holaxe: berba bat itten bauen euskeraz baekixela zer euken gero, aitteri, horreik bestiok.
- Baiña bestiok euskaldunak ez ziren izango.
- Guk barbarik be ez orduen e? Harrapau ahal dana, emun, aide. Pagau ezkerro pentsaik. Persona diferentia daz, guztirakuak. Hor, bata erdeldune eta bestie uskaldune? Nik batari be ez neutsen federik emuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com